

## *Behin egin zelako orain den tuntun bera!*

*Bazen behin, bai bai, bazen behin hasten da ipuin hau, erretzaile baten ipuin Kafkatiar hau, topiko honek, kontraesankorra dirudien arren, bere tamainako hasiera bat behar zuelako ezinbestean; bai ala bai.*

*Horixe ba, bazela behin bere burua auto-torturatzen zuen erretzaile bat, kontzientziari inkontzientea gailentzen zaiola ez zekien beste espezie bat. Halaber, jarrera, bizio, ohitura...nahi bezala deitu diezaiokezuen akzio horri -erretzearen ekintzari-garbigailuak barrukoari baino buelta gehiago ematen zion gizonkilo edo gizonkote bat. Berak baleki?!*

*Beste era batera esanda, garbigailuaren metaforari jarraiki, momentuka ganbara, hau da, garbigailua bera, betea bezain hutsa ikusten zuen gizontxo bat, azken finean, egia gordina, arropa bustiarekin zebilela baino ez zenean.*

*Hots, hamaika aldiz galdera berdinekin garuna ureztatuta ere, erantzunen uharte lehorrean jarraitzen zuela, ezinegonaren pisua aldean zeramalarik.*

*Mutil hori neu nintzen.*




*Mutil hori neu naiz.*

*Nork edo zerk sartu zuen hau ataka horretan? Zein izan zen jukutria-jokamoldea-ustea? Eta zenbat horrelako beste galdera?! Dagoeneko ez dio axola.*

*Ardura duen bakarra, nahiaren saiakera hutsetan geratu izatearen arrazoia da. Eta labirinto horretan bera bakarrik dago, ez beste inor. Bera eta bera burua, ezin hobeto esanda.*

*Gorputzaren eragin jakinetatik at, behin betiko erantzuna gordetzen duen atearen giltza norberaren baitan baitago beti, ez beste inon, ematen saiatzen garen arren.*



*Aurkitzen? Gure gizonak bere amets irudietan behintzat ez, puntu ezberdinetatik enfokatuta ere, aurpegi ezberdin baina erantzun berarekin topo egiten baitzuen.*

*Erreza dirudite tranpa zoliek!*

*Kontzientearen lehen pausuaz eman zuen behintzat, kokolo aurpegiak gainezka egiten zion arren.*

*Erabakiak ohikoak ziren gau une luzeetan zehar; erretzeari husteko epea jarri, eguneroko zigarroei zenbaki bat jarri, erretzekotan irri-belarrak bakarrik erre...*

*Beti horma berarekin egiten zuen topo ordea, irtenbide guztiei hutsune bat aurkitzen ziela alegia. Hasperen eta hasperen artean uztea eskatzen zion gurariak, eta hasperen gabeko denboretan, derrigorrean hasperen egitea. Paretari behin eta berriz jotzen aritzea bezalakoa zen, behin jotzeari utzita 'lasai' geratzeko!*

*Arazoa gehienbat psikologikoa zela antzematen hasita zegoen, lehen pausoa bigarren batekin berretsiz, hau da, sugestioak subkontzientean duen eraginaren balioaz. Gogo indarra nahiko litzateke bestela 3 astetan burua zizelkatzen duen zomorroarekin bukatzeko. Nikotinarekin akabatzeko! 'Hutsune' hori berean estaltzen duen, ustezko bakea ematen dizun droga horrekin bukatzeko. Odola irabiatzeko 7 segundo nahikoa dituen kaka hori komun zulotik behera jaurtitzeko!*

*'Ze ona! Aurkitu dut bidea' pentsatu zuen gureak: 'nikotinatik at dauden erre bideetatik ibiliko naiz, edozer erretzeak berez dituen gaitz konta ezinetatik libro geratuko ez naizen arren. Belarraz bakarrik hornitutako zigarretak erreko ditut, ez baita frogatu egun, irri-belarrak behintzat menpekotasunik sortzen duenik, nikotinak ez bezala'.*

*"...maritxu nora zoaz, eder galant hori..."*

*Horrela, dependentziarekin behar den bezala golpean bukatu beharrean, kafetxoarekin edo garagarrarekin binomioa egiten jarraituko luke. Edo argiago esanda, erretzeko deia luzatzen duten egoerei (asperdura-kontzentrazioa/estresa-erlajazioa) irteera ez erradikal bat eskaini.*


*Itsu puntua gustuko zuen, berari eta are gutxiago inori, egonezinik sortuko ez liokeen itsu puntua. Jakina, behar zen une eta lekutan. Denarekin ez moztearen arrazoia nagusia ordea beldurra zen; hutsune bat sentitzearen beldurra! Hori zen egia nagusia.*

*Amets edo itsu batek, edo noan esatera, amets itsu batek ireki zizkidan begiak halako batean. Nire saiakera horietako batean, berdea baino erretzen ez nuen hartan, belar haragijale baten barnean harrapatuta geratu zen zomorroan bihurtu nintzen.*

*Pozarren nengoen nahi nuena baino jaten ez nuelarik. Selektionatutako orrian. Aukeratutako lorean. Loreztiaz baliatzen zen zomorroa nintzen! Ume bat bere gozokietan bezala.*

*Neure burua ondo ikusten nuenez, pozik jarraitzen nuen nire bizioetan gainera. Egia gordina aldiz guztiz zen ezberdina: garuna filtroari lotuta zeukan zortearen titare bat nintzen. 90.pisuko eraikinean behera, 40.aren pare, ezer gertatzen ez zela zioen bera.*

*Esan, esan lasai; hogeitaka lepoan eta oraindik horrela?!*



*Nire itsuak ez zuen hori ikusten ordea, momentuko 'plazera' baizik.*


*Orri gabe geratzen hasia nintzen ordea, eta gogo indarretik tiraka ere, ezin nuen ezer gabe geratuko nintzen beldurrarekin bukatu.*

*Beldurra !*

*Beldurra !*


*Beldurra !*

*Edozeri sartzen nion hagina azkenean. Gogo indarra zapata estuekin ibiltzea bezalakoa egiten baitzitzaidan eta, aukeran nahiago nuen minetik arindua egon.*



*Zergatik zapata beraiek ez erantzi orduan, zapata gabe aske bizitzerik banu? Edo erretzaile ez direnak, akaso badute ba ardura psikologikorik? Edo neuk lotan amets puta honetatik kanpo?*

*Konturatu nintzenerako, nire Kafka -irrealaren bezain erreala-bereak egiten hasia zen, bai horixe, eta loreztia bera zen zomorroa jaten ari zena, leun leun, aspaldi batetik gainera. Hau da, ni irensten! Irentsia nintzen neure gozoan, deabruak gozoki sinple batekin engainatua bezala.*



*Nahikoa da! Oihukatu nuen iratzartzeaz bat. Ametsetan ere hutsunea sortzen? Beharrik gabe gainera?*

*Bizitza gezur batera kroatzeko laburregia zela pentsatu nuen orduan. Azkenean, nire ametsa bezala, plazebo hutsa zelako dena. Errealitatea, ohi duen gisan, ametsa bera baino gezur handiagoa zela txo!*

*Jakin-minaren danbolinari, bizioaren danborrari eta azkenean beharraren mailukadari ateak ixteko asmoaz, erretzeari ematen diogun baloreaz bukatu nahi nuen.*

*'Utzi ni bakarrik!! Utzi ni bakarrik!!' esaten nuen neure kolkorako, neuk bakarrik egin dezakedan esamoldeari aupadaka, eta zigarroa bera, bera bakarrik uztera gonbidatzen ibiliko balitz bez. Binomio bat salbatzera beste bat baletor bezala.*



*Erronka bat nuen muturretan, bai muturretan, non bestela, baina muturreko erronkak goi muturreko erronka zuen goiburua; burukoa alegia. Ezer sakrifikatzen ez dudala sinestea. Hutsunea, nikotinak berak sortzen zidala sinestea baino zailagoa zalantza zipitzik gabe.*

*Eta oraindik, esna, egiaren jabe izanik alegia, jarraitzen dut, erupzio formako hutsune psikologiko honi krema morfologiko hau ematen.*

*Zulora naraman, zuloa eragiten didan zuloari zuloa egiten!*

*Haserako lelo aurpegiarekin ez bada ere, eta pijama bustiarekin jaikitzen ohitua egonda ere, garbigailua -garuna-konpondu ezinik.*

*Behin egin zelako orain den tuntun bera!*